

1236. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Xedea

Ludoteka zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Ludoteka zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua 2011ko abenduaren 31n amaitzen da.

Bigarrena: 2011ko azaroaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak Ludotekaren zerbitzua emoteko zerbitzu kontratuari jagokozan administrazio baldintzak eta baldintza teknikoak onartu ebazan.

Argudioak

Lehenengoa: 2011ko azaroaren 22an, MB2000 Zerbitzu Soziokulturalak, Batun-Batun Aisialdi Kultur Elkarteak eta Aisialdi XXI elkarteak publizitate bako prozeduran parte hartzeko gonbidapenak jaso ebezan.

Bigarrena: 2011ko azaroaren 30ean, MB2000 Zerbitzu Soziokulturalak bere proposamena aurkeztu dau.

Laugarrena: Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Saileko teknikariek, 2011ko abenduaren 13an batuta, ondorengo puntuazioa emotea erabagi dabe:

	Ludoteka Zerbitzuaren Proiektua	Prezioa
MB 2000 Zerbitzu Sozio-Kulturalak	36	51

Ondorioa: MB 2000 Zerbitzu Soziokulturalak 87 puntu daukaz.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Ludoteka zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua MB 2000 Zerbitzu Sozio-Kulturalak elkarteari esleitzea. Epea urte betekoa da, 2012ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Dana dala, esleipen emoileak halan erabagiten badauen, kontratua beste urte bat luzatu ahal izango da, beti be, jatorrizko kontratuaren epea amaitu baino arinago.

BIGARRENA: Ludoteka zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua 18.120 €-an esleitzea onartzea, BEZa kanpo. BEZari jagokon zenbatekoa 1.449,60 €-koa da. Danera: 19.569,60 €

HIRUGARRENA: Enpresa esleituari, aitaturako esleipen horren indarrez, segidan adierazoten diran jarduketak egin beharko dauzala jakinarazotea:

- Kontratua administrazio kontratu bidez formalizatzea.
- Jarduketa horreek egiteko epea hamar egunekoa izango da, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bermeon, 2011ko abenduaren 29an
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNeko IDAZKARIA